

XXIX. Espainiako haustura taldeko topaketa MUn

2012/01/24

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak XXIX. Espainiako haustura taldeko – Egitura Osotasuna topaketa antolatuko du martxoan.

Landuko diren gaiak material eta egiturek nekearen, hausturaren eta iraunkortasunaren aurrean duten portaerari buruzkoak izango dira; azkeneko ikerketak aurkeztuko dira, batetik, esperimazio neurrien ingurukoak eta bestetik modelizazioarentzako zenbakizko simulazioari buruzkoak, gainera, atal bat egongo da industrian duten aplikazioaren ingurukoa. Azken hau bi ikuspegietatik landuko da: industriarekin harremanetan lan egiten duten ikertzaileen ikuspegitik eta hainbat industrien ikuspegitik, zeintzuk dituzten arazoengatik hitz egingo dute eta arlo honetan dituzten beharrak azalduko dituzte.

Topaketaren aurretik, Ikastaro Monografiko bat antolatu da, Neke Termomekanikoari buruz. Ikastaro hau Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan egingo da eta azken urteko ikasleak, proiektua egiten ari direnak eta doktoregaiek parte hartu ahal izango dute.



Espainiako haustura taldea